

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA lantegia

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA 2018/11/06, Bizkaia Aretoa EHU (Bilbo)

Gaiak:

1. Proiektuaren aurkezpena: lanketa-fasea
2. Datuen azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa
3. Ekimenerako proposamenak
4. Kontrastea
5. Aurreikuspena
 - ▶ Emaidza: datuak eta proposamenak
 - ▶ Produktua

1. Proiektuaren aurkezpena: lanketa-fasea

AURKEZPENA: Tailerraren lehen fasean Belen Urangak proiektua aurkeztu eta tailerraren helburuak azaldu zituen, azpimarratuz erakutsiko diren datuak lanketa-fasean dagoen dokumentuan integratuko direla.

SARRERA: Xabier Aierdi proiektuaren zuzendariak Gipuzkoako immigrazioaren ezaugarri nagusien berri eman zuen, fenomeno orokorrean kokatuz.

00 DATU OROKORRAK: Belen Urangak proiektuak momentuz emandako datuak aurkeztu eta datu horien banaketa erakutsi zuen:

- Gipuzkoako biztanleriaren jatorria zenbakitan: Gipuzkoa, EAE, Nafarroa, Estatuko berriazko hizkuntza dutenak eta Estatutik kanpokoak
- Immigrazioko datu orokorrak eta bilakaera, batez ere, Estatutik kanpokoak
- Sexuaren arabera immigrazioko populazioaren banaketa eta bilakaera
- Adinaren arabera immigrazio-populazioaren banaketa herrialdean eta eskualdeetan

01. Biztanleriaren jatorria jatorri-estatuaren arabera



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

- 20 Estatuak: 1.000 biztanle baino gehiagoko kopuruak eta hizkuntzak
- 124 Estatuak: 1.000 biztanle baino kopuru txikiagoak eta hizkuntzak

02 Eskualdeen araberako datuak

- Orokorrak
- Gizon eta emakumeen arteko banaketaz
- Adinaren araberako banaketa
- Jatorria eta hizkuntzak

03 Udalerrri mailako datuak.

- Donostialdeko datuak adibide gisa. Kopuru orokorrak, gizon/emakume banaketa, adina eta jatorri-estatuak kontuan hartutako hizkuntzak
 - Donostiako adibidea
 - Gainerako udalerrietako hurbilketa

04 Hizkuntzen mapa: egoerak, neurriak eta ekimenak

Atal honetan aurkeztu ziren kudeaketa egoki baterako egin daitezkeen proposamenak, bereiziz:

- A. Sentiberatasun orokorreko ekimenak, bai immigrazioko populazioa xede hartuta eta baita bertako populazioari begirakoak. Horretarako orokorrean aipatu behar da ezinbestekoa dela MODU OROKORREAN hizkuntza-aniztasunaren aitortza egiteko sentiberatasun kanpainak eta bestelako ekimenak martxan jartzea.
- B. 20 estatuetaiko hizkuntzak. 1.000 hiztun baino gehiago dutenak gune hartuta, kudeaketa egokia eta zehatza egitea helburu
- C. Ondorengo 124 gainerakoetako hizkuntzak: mila hiztun baino gutxiago dituztenak

2. EKIMEN ZEHATZETARAKO PROPOSAMENAK

Honako ekimen zehatzak proposa daitezke:

1) Aniztasunaren inguruko azterketa sektorial zehatzak egin daitezkeela:

- Hizkuntza eta kultura arteko loturak
- Administrazioarekin harremanetan (harrera)
- Etxean (hizkuntzen transmisioa)
- Hezkuntzan
- Kultura, hizkuntza eta generoaren arteko loturak

2) Gizarteari begira:

- Hizkuntza-aniztasunaren eta ekosistema linguistikoaren garrantzia ezagutzera eman
- Euskal Herrira etorritako hizkuntzen ezagutza eta sentiberatzea lantzea
- Sentiberatzea: zerbitzuetan, eskoletan, gizartean

3) Immigrazioko biztanleriaren hiztunek

- Aniztasunaren balioaz jabetuta, dagokien ama/lehen/jatorri-hizkuntzarekiko harrotasuna sustatzea
- Hemen, hobeto bizitzeko euskararen balioaz sentiberatzea eta euskara hurbiltzeko neurriak hartzea.

Horiekin batera beste hauek ere landu daitezke:

- Ezagutzen diren hizkuntzen mapa egin, ezagutzera eman eta ekitaldi publikoak prestatu.
 - Hizkuntzen erakusketa ibiltariak burutu mapetan oinarrituta.
 - Hitztunekin ekitaldi publikoak egin.
 - Aitortza ekimenak burutu tokian tokikoak.
 - Immigrazioaren jatorrizko hizkuntzen testigantza eman dezaten ekitaldiak prestatu.

Bestalde, gogora ekarri behar da garrantzia berezia duela gaztelania hizkuntza ofiziala duten jatorri Estatuetakoko immigrazioaren pisu demografikoa oso handia dela, eta horregatik, honako ekimenak kontuan hartzea komenigarria dela:

- **GAZTELANIAREN ESTATUSA**



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

- Gaztelania: immigrazioko biztanleriaren erdiaren jatorrizko hizkuntza denez, hiztunak euskararekiko harremanean berariaz fokalizatzea eskatzen du.
- Euskararekiko begirunea, jakite asmoa eskatzea komeni dela, bertan gizartean hobeto txertatzeko eta ekonomikoki aurreratzeko garrantzizkoa izan daitekeelako aukera berdintasunaren ikuspegitik
- NEURRIAK ETA EKIMENAK
 - Hizkuntzen mapa ezagutzera eman; ekitaldi publikoak prestatu.
 - Jatorrizko lurraldeetako aniztasunaren berri eman; minorizazio-prozesuen berri eman
 - Hizkuntza ekologiari buruzko ideiak erakutsi
 - Gaztelania ez beste hizkuntzen inguruan ere ekitaldi publikoak egin.
 - Hizkuntza gutxituekin aitortza ekimenak burutu.
 - Jatorrizko hizkuntzen testigantza eman dezaten hiztunekin ekitaldiak prestatu.
 - Gaztelania eta euskararen bizikidetzeta eta lankidetzeta sustatu.
 - Euskarak gizarte inklusio eta goranzko mugikortasunean duen garrantzia azaldu.
 - Udalerrrika, eskoletan, boluntario eta monitarizazio programak martxan jarri...

Eta, bereziki, modu beregainean aztertu eta proposamen berriak egin behar dira honako kasuetan:

- **Hiztun-kopuru esanguratsuak dituzten hizkuntzak (berariazko garrantzia)**
 - Hamar hizkuntzen kasuetan (arabiera, tamzitgha, urduera, punjabera, errumaniera, wolof...) ikerketa berezituak egin
 - Bi faktore gurutzatu zer-nolako beharrak sor daitezkeen ikusteko: adina eta konpaktazioa.
 - Izan ere, adinaren arabera, 15 urtetik beherakoen kasua berariaz landu behar da eta 100 hiztun baino gehiagoko nukleoak berariaz aztertu.
 - Udal edo eskualde mailako hizkuntza horien arabera eskaintza aztertu



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

- Ezagutzen diren hizkuntzen mapa egin, ezagutzera eman eta egoeren tipologia azaldu.
- Hizkuntzen erakusketa ibiltariak burutu mapetan oinarrituta.
- Boluntario eta monitarizazio prozesuak abian jarri.
- Hitzunekin ekitaldi publikoak egin.
- Aitortza ekimenak burutu.
- Euren jatorrizko hizkuntzen testigantzarako ekitaldiak burutu
- Interbentzio erak aztertu, aktiboki eztabaidatu, eta azaldu publikoki.
- Hizkuntza sustatzearen inguruko ahalduentze prozesuak diseinatu eta garatu.
- Irizpide eraginkorrak diseinatu hizkuntza eskariei aurre egiteko.

AZPIMARRATUTAKO GAIAK

1. Garrantzia berezia izango du **HARRERA INTEGRALA IRUDIKATZEA ETA LANTZEN HASTEAK**. Horretarako, aniztasuna, sexuaren ikuspegia, kultura- eta erlijio-aniztasuna kontuan hartu beharko dira.
2. Gipuzkoa lurralde aitzindaria izan daiteke immigrazioa eta hizkuntzen arteko kudeaketa egiteko proposamenetan, sentibera delako bi gaiak uztartzearen aurrean eta euskararen dentsitate-mailak aukera ematen diolako gutxieneko zorua iraunkortasunaren ikuspegitik lantzeko; helburua litzateke hizkuntza-kudeaketa demokratikoagoa eta justuagoa egitea euskarari (hizkuntza gutxitua) biziberritze-prozesuan sendotuz.
3. Euskarari buruzko irudiak, usteak eta balioen inguruko lanketa berezia egitea ezinbestekoa izango da gizartean, eta berariaz immigrazioko populazioaren artean, eurentzat ere goranzko mugikortasun sozial eta ekonomikoan euskara jakitea interesgarria izan dadin.
4. Bereziki lanketa berariazkoa egitea komeni da gaztelania hizkuntza duten immigrazioko populazio elebakarraren kasuan. Kontuan izanda, gainera, horietako gehienak gizartearen lan-esparru ezkutuenan eta gehienetan egoera ez oso onean ari direla lanean (etxe barneko zaintzan), berariazko lanketa egin beharko da, baita zerbitzu hobea eskaintzeko ere. Arduradun publikoek ardura berezia jarri beharko lukete gai honen inguruan.

5. Beraz, zeharkakotasuna sustatu behar da, batez ere udalerrri mailan. Zerbitzu sozialetako eta hizkuntzetako teknikarien arteko harreman iraunkorrak egiteko protokolo zehatzak eta koordinatuak sortzea ezinbestekoa ikusten da. Horretarako, ordea garrantzizkoa izango da lurraldearen mailako ardura dutenen artean ere zeharkakotasun hori erakustea. Alegia, Gipuzkoako Foru Aldundietako zerbitzuek plangintza eta ekimen bateratuak lortuko balituzte, horrek aurreratzea ekarriko luke, lehen maila batean Gizarte Zerbitzuen eta Euskara zerbitzuen artean, ondoren, gainerako esparruetan ere eragin ahal izateko. Kontuan izanda, immigrazioko populazio hori zaugarria dela, beharrezkoa litzateke bestelako interbentzioak erre aurreikustea, garapen ekonomikoarekin eta lan-munduarekin zerikusia duten ekimenetan ere.
6. Horrek sustatu beharko luke, gainera, enpresetan ere aniztasun planak egitea: kultura, jatorria, hizkuntza, sexuaren araberako planak egitea, hain zuzen.
7. Gizarte zerbitzuetako ekimenak maila folklorikoetan ez geratzeko ahalegin sendoa egitea komeni da. Ziur asko adinaren araberako populazioaren banaketaren arabera interesgarriak izan daitezkeen ekimen desberdinak jar daitezke abian.

3. AZKEN OHARRAK

Gipuzkoako Hizkuntzen mapa proiektuaren lehen fase hau 2018an amaituko da. Horretarako, Soziolinguistika Klusterrak Xabier Aierdi zuzendariarekin batera behin-behineko txostena idatziko du, eta bertan erakutsiko dira hemen landutako datuak, udalerrri mailako zehaztasunarekin eta hainbat mapa erakutsiz. Horrez gain, ekimeneko proposamen sorta bat ere bilduko du txostenak, lan-talde honetan esandakoak ere integratuz.

Behin-behineko txostena aholku-taldeko kideei bidaliko zaie, fase honetako azken ohar eta iruzkinak egin ditzaten. Horrela osatuko da behin betiko txostena.

Nolanahi ere, proiektuaren hurrengo fasearen lanketarako ideiak ere lantzen hasiko da Soziolinguistika Klusterra, eta behin-behineko proiektua bera partekatuko du aholku-taldeko kideekin euren ekarpenak ere jasotzeko helburuarekin.